## 5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALA

Gure balio proposamena jendeari helarazteko eta produktua merkatu-segmentuetara iristeko, nagusiki kanal zuzena erabiliko dugu baina baliotuko gara webgune batez eta odontologoez produktua ahalik eta gehien hedatzeko.
Jendeak jakiteko gure produktua bertan erosi daitekela, pegatina batzuk emango ditugu gure logoarekin eta elkarlanean aritzen garen kliniketan eta farmazietan jarrita egongo da.

Komunikazio kanalei dagokionez, internetetik zein aurrez aurre egingo dugu, Gazteizko Ariznabarra parkean kokatuta dagoen SEAVI izeneko “coworking” ofizina baten lan egingo dugu astean zehar goizetan bost orduz, 125 eurogatik hilean eta bertan posta elektronikoa, telefonoa eta sare sozialak aurrera eramango dira, bezeroen arreta osorako. Pertsona guztiek idatzi ahal izango digute nahi dutenerako eta gugaz erantzunda izango dira, ez roboten bidez erantzun automatikoekin. Sare sozialak baita ere, promozioak eta publizitatea aurrera eramateko erabiliko ditugu. Hona hemen, sare sozialetan argitaratuko den publizitate eta promozioen adibide batzuk:
Kartel bat:




Hiru irakarki, bakoitza merkatuaren segmentu batera zuzenduta: (iragarki hauek, eitb-n jarriko ditugu, ez dugu jarriko kanal baten espainia mailan, hasieran soilik nahi dugulako euskal herrian zabaldu gehien bat Gazteizen)

https://drive.google.com/file/d/1D1GDT9Si399vedbFN1f7aFQB1pXiD8qO/view?usp=drivesdk

https://drive.google.com/file/d/1FzR2dKyV_9t8am57TzlK4mbMLUQbnU70/view?usp=drivesdk

https://drive.google.com/file/d/1jd8pSp6ZvI-JP3wsi49kL3UB8FfNmImi/view?usp=drivesdk

Beste bi video promozioenak, tiktoken edo instagramen igotzeko:
https://drive.google.com/file/d/196rTJbfayZglBanszd2DJfEibWrFZlFw/view?usp=drivesdk

https://drive.google.com/file/d/1c7J-1-aSDpxw5Ujyd3G9_w3wQKnV88sa/view?usp=drivesdk

Gainera, web gune bat irekiko dugu eta atal baten bitartez kontaktuan jarri ahalko dira gurekin. Webgunea gehiago zentratuta joango da salmenta kanal bat moduan baina aukera emango diegu ere bertatik gurekin kontaktuan jartzeko, informazio gehigarriaren bila, kezken bila edo arazorik izan badu konponbide bat aurkitzeko ere.

Salmenta kanal nagusiena web gunea izango da, bitartekari bat izango da produktua aukeratu eta erosteko, guri eskakizuna iritsiko zaigu eta bi aukera emango ditugu. Alde batetik, ahalko dira ofizinara etorri eta bertan edukiko dugu gelatxo bat moduan beraien anatomia ereduak ateratzeko, skanerrareki, guk bertatik eskuila sortzera bidaliko dugu eta ahalko dira ofizinara etorri bere bila edo etxera bidali. Beste alde batetik baliatuko gara elkarlanean aritzen garen klinikako odontologoez. Bezeroak joan daitezke gure pegatina edukiko duten hortz kliniketara skanerra egitera doainik eta odontologoak guri bidaliko digu skanerraren eramaitzak. Gainera, beraiek gure produktua gomendatuko diete euren pazienteei. Batez ere, odontologoek beraien pazienteek ahalik eta higiene hoberena izatea nahi dutelako eta horrela lan asko aurreztuko zuetako higiene txarragatik gaizki ateratako tratamenduekin.

Aipatu beharra dago, farmaziei aukera emango diegula gure produktua saltzeko, hauen kasuan bezeroak skanerra egitera bidaliko ahalko lukete kliniketara edo gure ofizinara eta gero farmazian bertan jasoko litzake eskuila.

Ezintasunak dituzten pertsonei iristeko, aurretik aipatutako erakundeetara joango gara eta gure produktua eskeiniko diegu. Txarlak emango ditugu erakusteko nola funtzionatzen duen eta dituen abantailak eta zozketa bidez partaide batzuei doainik emango diegu eskuila frogatzeko epe zehatz batean. Bertara gerturatuko gara skanerrarekin beraien neurriak hartzera eta bertara bidaliko dizkiegu eskuilak.

Denbora batera joango gara ikustera ea gustokoa duten eta bat erosi nahi duten ikusteko.

Banaketa kanalei dagokionez, gure produktua ofizinan jasotzeko eta etxera edo jasotze puntu batera bidaltzeko aukera emango dugu. Ofizinatik kanpora bidaltzeko, korreos enpresarekin egingo dugu eta honek etxera bidali ahalko du produktua zuzenean edo jasotze puntu batean utzi ahalko du eta kode bat emango genioke kutxa ireki ahal izateko eta paketea hartzeko. Kodea webgunetik bidaliko zaio automatikoki bertatik egin badu erosketa, berriz,hortz klinikan erosi badu, gmail baten bitartez kodea bidaliko genioke. Jasotze puntura bidaltzeko aukera ematen dugu, izan ere badakigulako jende asko ezin dela egun osoa etxean egon eta agian egunak iraun dezakela korreoseko langilearekin ordutegiagatik kointziditu gabe eta guk bezeroari ahalik era erraztasun eta erosotasun handiena lortu nahi diogu, gurekin izandako esperientza ona izateko.

Webgunearen funtzionamendua oso sinplea izango da, saioa hasi beharko da korreo elektronikoa sartuz eta pasahitz bat eratuz.
Bertan agertuko da atal bat non gure produktuak ageri diren eta beste atal bat informaziorako, honi esker jendeak jakin izango du gure produktuaren xehetasun guztiak eta zein zuntz aukeratu beren ahoko osasunera hoberen egokitzen direnak. Baita, ikono bat agertuko da mezu batena eta bertan klikatzean gurekin kontaktuan jarri ahalko dira edozein zalantza argitzeko. Behin eskuila eskatuta, mezu bat iritsiko zaie aukeratzeko non atera beraien ahoko inpresioak edo skanerra eta itzordu bat hartzeko. Behin inpresioa aterata, bezeroari ordaintzea eskatuko zaio, baina ez bere ahoko anatomia eduki aurretik, konfiantza gehiagio eskaintzeko gure bezeroei.